

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak tokiko erakundeen obretarako inbertsioak diruz lagunduko ditu 4,2 milioi euroekin

*Erdiak zolaketarako eta sareetarako dira, bai eta hondakinekin konposta egiteko instalazioa ere*

Jueves, 06 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak azken asteetan hainbat toki-erakunderen obretarako inbertsioak ordaindu ditu, zehazki 4,2 milioi euro.

Inbertsio horien erdiak, gehienak Tokiko Azpiegituren 2009-2012 Planetik datozenak, zolaketak egiteko eta hondakinen konposta egiteko Arazurin dagoen instalaziorako dira; azken lan hori Iruñeko

Eskualdeko Mankomunitateak egiten du, NILSA (Toki Azpiegituren Nafarroako Sozietatea, SA). 2012ko Nafarroa Planean sartuta dago eta diru-laguntza 858.024 €koa izan da. NILSAk, gainera, 120.533 €ko laguntzak jaso ditu Altsasuko geltokiko auzoko ponpaketa-estaziorako, eta Bidankozeko ibaien arazketa eta saneamendurako (83.642 €).

### Saredun eta sarerik gabeko zolaketak egiteko diru-laguntzak

Saredun zolaketak egiteko zenbatekoak diru-kopuruak 601.159 € dira guztira, horietatik 223.676 € Iruñeko Tafalla kalearen (Karlos IIIa eta Behe Nafarroa kaleekiko elkargunean) I. faseko eta II. faseko berrurbanizazioari dagozkio. Berriozarreko Udalak, bestalde, 27.874 € jaso ditu Gipuzkoa Hiribideko 44. eta 52. zenbakien artean espaloiak zolatzeko, eta Arguedaseko Udalak 37.925 € jaso ditu, Silo, Tejeria eta Tuterka kaleetarako. Bestalde, Ollakarizketak 38.303 € jaso ditu Zipea eta Txantrea auzoen zolaketarako, eta Bargotak 88.579 € Real eta Aldapa kaleetako lanetarako. Mendigorriak 11.827 € jasoko ditu zeharbide berria zolatzeko eta Murillo el Cuendek 67.399 € Aradako Nafarroa Hiribiderako; azken kopuru horri beste 55.144 € gehitu behar zaizkio Arradan Nafarroako Hiribideko pasealekua zolatzeko (sarerik gabe). Piedramillerak, era berean, 22.103 € jasoko ditu Kale Nagusia eta Bajera kalea urbanizatzeko.

Sarerik gabeko zolaketetan egindako inbertsioei dagokienez, guztira 460.000 euro izan dira eta, horien bitartez, Nafarroako Gobernuak



Arazuriko instalazioak.

ordaindu ditu Lakabeko lanak (18.779 €), Eultzeko Las Eras kaleko zolaketa (10.442€), Tafallako Las Ruedas pasealekukoa (73.595 €) eta Kuartropeakoa (39.675 €), Zugarramurdiko Azketa, Azketaberri eta Bexkor kaleetako zolaketa (57.473€), Antzineko Ikaztegi kalea (14.743 €), Zudairiko hainbat kaletako lanak (37.788 €), Lukinen euste-horma bat berreraikitze lanak (9.600 €), Santsolen Takonera kaleko zolaketa (48.046 €), San Martingo hainbat kaletako lanak (30.673 €), Nazarko udaletxearen ondoko kaleen zolaketa (31.446 €), bai eta Larraonako zenbait kaleren zolak berritzeko lanak ere (33.044 €).

### **Sareak, argiztapena eta hornikuntza**

Tokiko sareen atalean, Nafarroako Gobernuak 641.936 € inbertitu ditu Cascanten N-121 errepideko zeharbidean sareak berritzeko (246.953€), Ablitasen Camino del Prado kalean euri-uren hodi biltzaile bat eraikitze lanak (17.621€), Arradan Nafarroa Hiribidean eta zeharbidean hornidurako eta saneamenduko sareak berritzeko (110.014 €), Arguedasen Silo, Tejeria eta Tuterka kaleetako sareak berritzeko (40.486€), Mendigorrian sareak eta hodi-biltzaileak (33.212€) eta Obanoseko S. Guillermo eta Pablo Sarasate kaleetan sareak berritzeko (13.498€), biak Baldizarbeko Mankomunitatearen kargura egindako obrak. Lan hauekin batera, Foru Gobernuak 86.944 €ko diru-laguntza eman dio Iruñeko Eskualdeko Mankomunitateari Tafalla, Karlos IIIa eta Galizia Hiribidea kaleetako sareak berritzeko, bai eta Iruñeko Media Luna – Karlos III.a zatia berritzeko ere, eta azkenik Ollarizketan sareak berritzeko (40.575€).

Nafarroako Gobernuak, gainera, 343.121 € inbertitu ditu argi publikoak berritzeko hainbat obratan Bakedanon, (19.596€), Zudairin (27.445€), Antzinen (46.586€), Barasoainen (20.028€), Urbiolan (5.660€), Bargotan (38.833€), Lodosan (18.776€), eta Kasedan (166.193€).

Bestalde, Agoitz, Longida, Urraulbeiti eta Irunberriko udalek 237.842 €ko diru-laguntza jaso dute Nafarroako Gobernutik, Itoitzeko urtegitik egingo den uraren goi-hornidurako hirugarren faseko lanak ordaintzeko. Horrekin batera, Toki Administrazioaren zuzendaritza nagusiak udalerrri horien artean akordio bat bultzatu du, proiektu horri geratzen zaizkion faseetako lanei ekiteko, zehazki laugarren eta bosgarren faseei; hauek, besteak beste, Urraulbeiti eta Longidako udalerriei eragiten diete. Gainera, Nafarroako Gobernuak 47.906 € ordaindu dizkio Burgiko Udalari ur-hornikuntzako lanak finantzatzeko.

### **Bestelako jarduera batzuk**

Toki-bideetako lanetarako 149.405 € ordaindu dira guztira, honela banatuta: Nardoze-Aldunate bidea egokitzea, 19.823€, Lukuberikoborda egokitu eta hobetzea Zugarramurdin, 19.850 €, Longidako Udalaren kargura dagoen Meotzeko hilerriko sarbidea hobetzea, 22.495 €, Antzineko ur-biltegiako bidea konpondu eta egokitzea, 4.189 €; Garruesen (Ezkabarte) herrira sartzeko bidea berri eta egokitzea 38.057€, Dorre-Elortzibarko hilerriko bidea (21.661€) eta Gorritiko ur-biltegiako bidearen zolaketa ( 23.327€).

Halaber, 9.093 euro eman dira Nardose-Andurrako (Urraulbeiti), Zugarramurdiko, eta Mendazako hilerrietan hainbat konponketa egiteko, eta 295.501 euro ordaindu zaizkie erabaki askeko fondotan Bakaiku (58.426€), Elgorriaga (11.457€), Saldias (5.660€), Nazar (12.098€), Sunbilla (45.572€), Tafalla (103.267€) eta Zabaltzako udalerriei (20.769€), bai eta Eultz (4.071€), Zia (2.395€), Eritze (2.395€), Izkuere (5.554€), Lakabe (2.475€), Legasa (14.518€), Hiriberri (5.482€) eta Zarrantzeko kontzejuei. (1.357€).

Hiri-hondakinen bilketari dagokionez, Foru Gobernuak 55.381 €ko diru-laguntza eman die Bortziriko Mankomunitateari atzeko kargadun kamioi bat erosteko eta Erriberagoitiko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateari edukiontzia erosteko, 16.797 €ko kostuarekin.

Gainera, Nafarroako Gobernuak 243.834 € ordaindu ditu udal-erakundeak berri eta egokitzeko Olaibar (21.233 €), Imotz (27.138 €) eta Lanako (8.833 €) udalerrietan, eta Izkuere (16.116€), Errazkin (27.413€), Getze-Galar (111.166€), Itza (17.200 €), Traibuenas (6.575,56€) eta Olabeko kontzejuetan (8.148,21€).